

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS
ASTELEHENA, 2023KO
MAIATZAREN 29A
XX. URTEA, 5.381. ZENBAKIA



Orioko EH Bilduren taldea, hauteskundeetako emaitzak jakin ostean. Taldeak lau zinegotzi gehiago izango ditu datorren agintaldian. ANDREA ZIPITRIA

Parte hartzea jaitsi arren, EH Bildu izan da nagusi berriro eskualdean

EH Bilduk irabazi du Aizarnazabalen, Azpeitian, Errezilen, Getarian, Orion, Zestoan eta Zumaian • EAJk gehiengo mantendu du Aian, Zarautzen eta Azkoitian • Beizaman, herri plataforma izan da garaile

Datuak eta grafikoak
HITZAren atarian informazio osagarria eta eguneratua

UROLA KOSTAKO UDAL HAUTESKUNDEAK 2023

Herria	EAJ	EH Bildu	PSE-EE	PP	Elkarrekin-Podemos	Herri plataforma	Errolda	Abst.
Aia	486 (6)	385 (4)	18 (0)	0 ()	0 ()	(ABB) 105 (1)	1.573	%35,60
Aizarnazabal	53 (1)	301 (6)	8 (0)	0 ()	0 ()	0 ()	565	%32,03
Azkoitia	2.003 (7)	1.848 (6)	438 (1)	62 (0)	(Azk. Bai) 810 (3)	0 ()	8.492	%37,50
Azpeitia	2.612 (7)	3.742 (10)	167 (0)	56 (0)	65 (0)	0 ()	11.389	%39,46
Beizama	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	0 ()	(ABB) 54 (5)	111	%28,82
Errezil	0 ()	189 (5)	0 ()	0 ()	0 ()	(Errezilgintza) 108 (2)	448	%28,12
Getaria	745 (5)	886 (6)	10 (0)	0 ()	0 ()	0 ()	2.180	%22,56
Orio	776 (3)	1.957 (10)	189 (0)	20 (0)	0 ()	0 ()	4.528	%33,21
Zarautz	4.774 (10)	4.534 (9)	1.070 (2)	411 (0)	478 (0)	0 ()	18.304	%36,35
Zestoia	493 (3)	1.060 (8)	38 (0)	0 ()	0 ()	0 ()	2.768	%39,16
Zumaia	1.577 (6)	2.641 (10)	499 (1)	46 (0)	0 ()	0 ()	7.855	%37,37
ESKUALDEA	13.519 (48)	17.543 (74)	2.437 (4)	595 (0)	1.353 (3)	()	58.213	%36,5
GIPUZKOA*	93.673 (260)	122.158 (462)	54.479 (91)	17.529 (7)	17.745 (16)	()	559.369	%40,10

*Behin-behineko emaitzak.



EAJk lortu du gehiengoa, baina EH Bildu oso gertu geratu da

EAJk hamar hautetsiri eutsiko dio, eta EH Bilduk bederatzi lortu ditu • PSE-EEK birekin jarraituko du, eta Elkarrekin Podemosek ordezkari tza galdu du udalean

-ARITZ MUTIOZABAL

Gaueko hamarrek alderako bukatu zuten atzo udal hauteskundeetako Zarauzko kontaketa ofiziala. 18.794 zarauztar zeuden boza ematera deituta, eta horietatik 11.652k (%63,67) jo zuten hautes mahaietara, udala osatzeko bozkatzera. Beraz, 2019eko udal hauteskundeekin alderatuta, 6,65 puntu jaitsi da parte hartzea; abstentzioa %36,33 izanik, zehatz-mehatz.

EAJk gehiengoari eutsi dio Zarautzen, eta hirugarrenez jarraian nagusi izan dira hautesle-kuetan. Edonola ere, orpo orpo izan du EH Bildu; kontaketa hasieran aurretik joan da koalizio abertzalea, baina erdialdetik aurrera eserleku baten aldearekin jarri da aurretik. Guztira, 4.772 boto eskuratu ditu alderdi jeltzaleak –botoen %41,46, hain zuzen–, duela lau urteko udal hauteskundeetan baino ia mila boto gutxiago jaso ditu EAJk; 2019ean, 5.757 izan ziren. «Hirugarren agintaldiz hamar zinegotzi izango ditugu, eta kopuru hori mantendu ahal izateak pozteko arrazoiak ematen dizkigu», azaldu du EAJren alkategai Xabier Txurrukak. «Zarautzek erabaki du aurrera egiten jarraitzea, eta horrekin oso gustiura gaude».

Nolanahi ere, datorren agintaldian ere hamar hautetsi izango ditu EAJk Zarauzko Udalean, azken bi agintaldietan bezalaxe. Txurrukaz gain, Irune Urbieta, Iban San Martin, Naiara Mendibil, Leire Arana, Estibaliz Agirre, Iker Basurko, Garbiñe Oiarbide, Jesus Arana eta Gervasio Gabirondo hautetsiek osatuko dute jeltzaleen udal taldea.

Zarautzen EH Bilduk jarraitu dio oso-oso gertutik EAJri, 234 botoren aldearekin. 4.538 herri-tarrek bozkatu dute koalizio subiranista oraingoan, hautesle-

eroldaren %39,43k, hain justu. 2019eko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta, ia-ia boto kopuru bera lortu du EH Bilduk ere; izan ere, zortzi boto gutxiago jaso ditu oraingoan. Datorren agintaldiari begira, bederatzi zinegotzi lortu ditu, duela lau urte baino bat gehiago: Itziar Murua, Ion Arozena, Ainara Landa, Ander Lukas, Eider Gurrutxaga, Mikel Agirre, Ainhize Larramendi, Esther Agirre eta Jexus Agirre. Esther Agirre eta Jexus Agirrekoetxea izango dira zinegotzi.

PSE-EEK nolabait ere mantendu egin ditu boto kopurua hau-



Zarauzko EAJ alderdikideak eta Xabier Txurruka alkategaia. JABI GONZALEZ TOSTON

teskude hauetan: 1.062 boto eskuratu ditu, 2019ko bozetan baino 120 gutxiago. Ondorioz, orain bezala, bi ordezkari izango ditu hurrengo agintaldian: Gloria Vazquez eta Inaxio Illarramendi. Azken horrek Patxi Elolak utzitako tokia hartuko du.

Ezustekoa Elkarrekin Podemosek Berdeak Equo koalizioak jaso du, udalean zuen ordezkari-tza bakarria galdu baitu. Oihane

Delgado zerrendaburuak ez ditu nahikoa boto lortu datorren agintaldian udalean jarraitzeko. Duela lau urte 664 zarauztarrek babestu zuten, eta oraingoan 481 boto soilik erdietsi dituzte.

PPk 410 boto lortu ditu, eta, beraz, ez du izango ordezkari-tzarik, azken agintaldian bezalaxe. Edonola ere, Carles Fernandez hautagaiaren taldeak 30 boto gehiago lortu ditu oraingoan.

Zarauzko emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EAJ	4.772	10
EH Bildu	4.538	9
PSE-EE	1.062	2
Elkarrekin Podemos	481	0
PP	410	0

Hautetsiak



Xabier Txurruka
EAJ



Irune Urbieta
EAJ



Iban San Martin
EAJ



Naiara Mendibil
EAJ



Leire Arana
EAJ



Estibaliz Agirre
EAJ



Iker Basurko
EAJ



Garbiñe Oiarbide
EAJ



Jesus Arana
EAJ



Gervasio Gabirondo
EAJ



Itziar Murua
EH Bildu



Ion Arozena
EH Bildu



Ainara Landa
EH Bildu



Ander Lukas
EH Bildu



Eider Gurrutxaga
EH Bildu



Mikel Agirre
EH Bildu



Ainhize Larramendi
EH Bildu



Esther Agirre
EH Bildu



Jexus Agirre
EH Bildu



Gloria Vazquez
PSE-EE



Inaxio Illarramendi
PSE-EE

EH Bilduk gehiengo osoa izango du datozen lau urteetan Orion

Koalizioak hamar zinegotzi lortu ditu, 1.957 boto eskuratuta • EAJ izan da bigarren indarra, 776 botorekin; hiru ordezkari izango ditu • PSE-EEk ez du ordezkariarik lortu

Orioko emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	1.957	10
EAJ	776	3
PSE-EE	189	0
PP	20	0

-AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA Orio

Udal hauteskundeetan EH Bilduk ezustekoa eman du Orion, 1.957 boto lortuta; hamar zinegotzirekin, gehiengo osoa izango du udalbatzan datozen lau urteetan. EAJ izan da bigarren indarra, baina 2019ko datuekin alderatuta, behera egin du nabarmen; 776 boto eskuratu ditu, iaz baino 375 boto gutxiago, eta hiru ordezkari izango ditu udalbatzan. PSE-EEk, berriz, 189 boto jaso ditu, 2019an baino 123 gutxiago, eta ez du ordezkariarik izango. EH Bilduko zerrendaburu Anuska Esnalek «eskerrak» eman dizkie herritarrei. «Ardura handiz baliatuko dugu oriotarren babesa, guztiontzat jarraituko dugu lanean, ahalik eta Orio onena egiten».

Hautetsiak



Anuska Esnal
EH Bildu



Olatz Santamaria
EH Bildu



Xabier Ibarguren
EH Bildu



Ainara Munduate
EH Bildu



Bittor Andres
EH Bildu



Inaki Makazaga
EH Bildu



Lohitzune Solabarrieta
EH Bildu



Iosu Lizarralde
EH Bildu



Nagore Rementeria
EH Bildu



Inaxio Alguacil
EH Bildu



Noemi Ostolaza
EAJ



Lurdes Salsamendi
EAJ



Jon Basurko
EAJ

Getarian EH Bilduk izango du alkatetza

Aldaketarik ez da izango Getarian datozen urteetan • EH Bilduk 886 boto eskuratu ditu, getariarrek emandako boto guztien %53,12 • EAJk 745 boto lortu ditu, boto guztien %44,66 • PSE-EEk, bestalde, 10 boto jaso ditu

-ONINTZA LETEARRIETA Getaria

2019ko udal hauteskundeetan bezala, atzo EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien Getarian; 886, guztira. 2019an baino boto gutxiago jaso ditu koalizioak, orduan 948 eskuratu baitzituen. Abstentzioa ere txikiagoa izan zen orduan, %19,43koa; atzo %22,57koa izan zen. Hala, Haritz Alberdik bigarren agintaldia betekoz alkatetzan. EAJ izan da bigarren alderdi bozkatuena, botoen %44,66ekin; 745 boto jaso ditu, guztira. Hala, aurreko agintaldian bezala, sei zinegotzi lortu ditu EH Bilduk, eta bost EAJk.

EH Bilduko alkategai Haritz Alberdi «oso gustura» agertu da lortutako emaitzarekin. «Erronka handia genuen esku artean, eta uste dugu emaitza ona lortu dugula».

Hautetsiak



Haritz Alberdi
EH Bildu



Ane Loidi
EH Bildu



Ekaitz Esteban
EH Bildu



Ainitze Gereka
EH Bildu



Eneko Miralles
EH Bildu



Jaione Larrañaga
EH Bildu



Iosu Mugika
EAJ



Karmele Martiarena
EAJ



Aitor Urresti
EAJ



Miren Karmele Azkue
EAJ



Hostaizka Etxeberria
EAJ

Getariako emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	886	6
EAJ	745	5
PSE-EE	10	0

Ostolaza alkate beste lau urtez

Hamar zinegotzi izango ditu EH Bilduk Zumaiaiko udalbatzan, 2019tik hamalau boto gehituta • Gehiengo osoa eskuratuta, Iñaki Ostolazak alkatezta ziurtatu du



Ilara luzeak sortu ziren atzo eguerdian Herri Eskolan ezarritako mahaietan. MARIA MAYA MANTEROLA

- MARIA MAYA MANTEROLA

Zumaia Zumaiaiko EH Bilduk lortu du helburua: beste lau urtez gehiengo osoari eutsi, eta gainera, zinegotzi bat gehiago izango du datorren agintaldian. Izan ere, guztira, 2.641 boto jaso ditu koalizioak. Boto emaileen % 54,52k eman dio hari babes, beraz.

Azpiraratzekoa da, dena den, parte hartzearen beherakada. Zumaia ez da salbuespena izan joera horretan; hain zuzen ere, ia zortzi puntuko beherakada izan du boto emaileen kopuruak.

Jeltzaleak atera dira kaltetuenak. Hain justu, 476 boto galdu ditu EAJren zerrendak duela lau urteko emaitzekin alderatuta, eta horren eraginez, zazpiren aldean, sei izango dira datozen agintaldiko zinegotzi jeltzaleak.

PSE-EEK, berriz, hamabi boto gutxiago eskuratu ditu. Duñike Agirrezabalaga izango da, ondorioz, alderdi sozialistaren ordezkari bakarra Zumaiaiko Udalean.

Gainerako indar politikoei akordioetarako tarterik utzi gabe izango da nagusi datozen lau urteetan koalizioa, Iñaki Ostolaza buru duela.

Hautetsiak



Iñaki Ostolaza
EH Bildu



Argi Yeregi
EH Bildu



Aitor Manterola
EH Bildu



Maria Bidasoro
EH Bildu



Asier Arakistain
EH Bildu



Maite Egaña
EH Bildu



Unai Larrañaga
EH Bildu



Joxe Mari Azkue
EH Bildu



Nerea Goiria
EH Bildu



Itziar Etxabe
EH Bildu



Josemi Antia
EAJ



Iker Mardaras
EAJ



Ainhoa Illarramendi
EAJ



Xabier Odriozola
EAJ



Mireia Aranbarri
EAJ



Ander Olaizola
EAJ



Duñike Agirrezabalaga
PSE-EE

Zumaiaiko emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	2.641	10
EAJ	1.577	6
PSE-EE	499	1
PP	46	0

Jeltzaleak izan dira garaile beste behin ere Aian

- ANDREA ZIPITRIA

Aia Goizean goizetik giro berezia antzematen zen atzo Aiako kaskoan, herriko hainbat auzotako eta baserriko auzotarrak gerturatu baitziren herrigunera beren botoa ematera. Udal hauteskundeetako parte hartzea %64, 40koa izan zen, iaz baino 1,49 puntu txikiagoa, alegia.

Gainerako herrietan egin bezala, 20:00etan puntuan itxi zituzten hautetsontziak Aian, eta azkar egin zuten kontaketa. Lehenik eta behin, udal hauteskundeetako botoak kontatu zituzten. Ez zen ezustekorik izan,

EAJk lortu baititu boto gehien Aian, 486 boto hain zuzen ere; dena den, jaitsi egin da alderdi horren indarra, 2019an baino 63 boto gutxiago eskuratu baitituzte guztira jeltzaleek. Bestalde, 2019ko datuekin alderatuz, behera egin du EH Bilduk ere, 385 boto jasota; 417 lortu zituen azken hauteskundeetan.

Hortaz, sei zinegotzi izango ditu datozen urteetan EAJk, eta lau EH Bilduk. Aiako Batzarre Burujabetzak, berriz, 105 boto lortu ditu; beraz, zinegotzi bat izango du udalean datozen lau urteetan. Alderdi sozialistak, al-

Aiako emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EAJ	486	6
EH Bildu	385	4
ABB	105	1
PSE-EE	18	0

diz, 18 boto jaso ditu, aurreko udal hauteskundeetan baino 5 boto gutxiago.

Halaber, %35,60ko abstentzioa izan zen Aian udal hauteskundeetan, eta 10 boto zuri eta 9 baliogabe izan ziren.



Boto zenbaketa, Aiako hautesleku batean. ANDREA ZIPITRIA

EH Bilduk izango du agintea berriro Errezilgo Udalean

-IHINTZA ELUSTONDO Errezil EH Bilduk irabazi ditu Errezilen udal hauteskundeak, 189 boto eskuratuta (%62,79). Errezilgintza alderdiak, berriro, 108 boto lortu ditu (%35,88). 21 boto baliogabe zenbatu dituzte, eta beste lau zuriak izan dira.

Udala osatzeko zazpi jarleku zeuden jokoan. 2019an baino 66 boto gutxiago jaso ditu EH Bilduk, eta bat gehiago, berriro, Errezilgintzak. Baina azken agintaldian bezala, bost zinegotzi izango ditu koalizioak, eta bi Errezilgintzak.

Beraz, Koldo Arzallus izango da Errezilgo alkatea, gehiengo osoa lortuta. Guztira, 322 boto zenbatu dituzte, eta beste 126 lagunek ez dute parte hartu udal hauteskundeetan. Beraz, parte hartzea %71,88koa izan da.



Koldo Arzallus. NEREA URANGA

Errezilgo emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	189	5
Errezilgintza	108	2

Aurrena Beizama Baik eskuratu ditu boto guztiak Beizaman

-NEREA URANGA Beizama Beizaman, Aurrena Beizama Bai herri plataformak lortu ditu boto baliagarri guztiak (74) udal hauteskundeetan. Plataformaren izenean aurkeztutako bost zerrendakideek aurrez adostutakoaren arabera, Pedro Otaegi izango da berriro alkatea. PSE-EEk ez du botorik lortu.

Herritarren %71,17k eman zuten botoa atzo.

Beizamako emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
Aurrena Beizama Bai	74	5
PSE-EE	0	0



Pedro Otaegi. N. URANGA

EH Bilduk bi zinegotzi gehiago izango ditu Zestoako Udalean

Gehiengo osoa berretsita, zortzi hautetsi izango ditu koalizioak, eta hiru EAJk •Mikel Arregi izango da berriro alkatea •Abstentzioak 11 puntu egin du gora 2019ko hauteskundeekiko

-MAILLO OIARZABAI Zestoa EH Bilduk orain arte zuen gehiengo osoa indartuta irabazi ditu udal hauteskundeak Zestoa, eta Mikel Arregi izango da berriro alkatea.

1.060 boto jaso zituen koalizioak atzo, botoen %64,13, 2019an baino 23 gutxiago. Hala ere, duela lau urte baino alde zabalgia ateratzen dio bigarren indarrari, EAJri: 493 boto lortu ditu alderdi jeltzaleak, (%29,82), 2019an baino 297 gutxiago. PSE-EEk 38 boto lortu ditu (%2,30), eta ez du ordezkaririk izango.

Horrenbestez, EH Bilduk zortzi zinegotzi izango ditu datorren agintaldian Zestoako Udalean, orain artekoan baino bi



Mikel Arregi botoa ematen, atzo. MAIALEN ETXANIZ

gehiago; aldiz, bost zinegotzi izateko hiru izatera igaroko da EAJ. 2019an ere EH Bilduk irabazi zituen udal hauteskundeak Zestoa, botoen %55,36rekin (1.083 boto); EAJ izan zen bigarren in-

dar bozkatuena, (%40,54, 793 botorekin); eta PSE-EEk 32 boto jaso zituen (%1,84).

Abstentzioa ere nabarmentzekoa izan da Zestoa: 11 puntu egin du gora 2019tik.

Hautetsiak



Mikel Arregi
EH Bildu



Lorea Ilundain
EH Bildu



Zigor Plazaola
EH Bildu



Beatriz Zubia
EH Bildu



Aitor Ossa
EH Bildu



Iñaki Odriozola
EH Bildu



Jone Exposito
EH Bildu



Nerea Goikoetxea
EH Bildu



Garikoitz Mendizabal
EAJ



Montse Atxega
EAJ



Eva Mangas
EAJ

Zestoako emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	1.060	8
EAJ	493	3
PSE-EE	38	0

-NEREA URANGA

EH Bilduk irabazi ditu 2023ko udal hauteskundeak Azpeitian. Gehiengo osoa berretsi du, botoen %55,44 lortuta (3.742 boto). EAJk, berriz, bozen %38,70 eskuratu ditu; 2.612 boto. Bi alderdi horien ordezkariekin osatuko da udala datozen lau urteotan ere: EH Bilduk hamar zinegotzi izango ditu eta EAJk zazpi. Azkenengo bi agintaldietan -2015etik 2019ra artekoan eta 2019tik 2023rakoan- ere halaxe izan da. Horrenbestez, azken agintaldian bezalaxe, Nagore Alkorta izango da Azpeitiko alkatea 2023-2027 agintaldian.

Azpeitiko Udaleraiko aurkeztutako beste hiru hautagai zereendek ez dute ordezkaritzarik lortu: PSE-EEK 167 boto lortu ditu (%2,47), Elkarrekin Podemos koalizioak 65 boz (%0,96) eta PPK, berriz, 56 boto (%0,83). Boto zuriak 108 (%1,57) izan dira, eta balio gabek 144 (%2,09).

Azpeitian 11.389 herritar zeuden botoa ematera deituta udal hauteskundeetan, eta 6.894 lagunek eman zuten botoa atzo. Azpeitian parte hartzeak behera egin zuen atzoko udal hauteskundeetan; hamar puntu jaitsi zen azken udal bozetatik. Abstentzioa %39,47koa izan da udal hauteskundeetan; %29,29koa izan zen 2019an, eta %34,17koa 2015ean.

Hirugarrenez nagusi

Azken bi udal bozetan ere EH Bilduk gehiengo osoa eskuratu zuen Azpeitian, baina oraingoan boto kopuruan behera egin du; 747 boto galdu ditu. 2019an botoen %57,11 lortu zituen; 4.489 boto.

EAJ bigarren indarra izan da Azpeitian azken udal hauteskundeetan. Alderdi jeltzaleak ere botoak galdu ditu 2019ko hauteskundeekin alderatuta; bozen %38,49 jaso zituen, 3.025 boto. Oraingoan, berriz, 413 boto gutxiago jaso ditu.

Erreakzioak

Nagore Alkorta EH Bilduren zereendaburuak eta datorren agintaldian ere Azpeitiko alkate izango denak udal hauteskundeetan lortutako emaitzarekin «oso pozik» dagoela adierazi zion atzo emaitzak jakin berrian UROLA KOSTAKO HITZARI, eta haiei botoa emandako herritarrak eskertu zituen. «Lortutako emaitzen balorazio oso positiboa egiten dugu. Azken agintaldia oso gogorra izan da, baina herritarren erantzuna oso ona izan da, eta oso pozik gaude alde horretatik.



Nagore Alkorta EH Bilduren udal talde berria osatuko dutenekin. HITZA

Gehiengo osoari eutsita, EH Bilduk irabazi ditu udal hauteskundeak Azpeitian

Datorren udal agintaldian ere hamar zinegotzi izango ditu EH Bilduk, eta zazpi EAJk • Parte hartzea hamar puntu jaitsi da azken udal hauteskundeetan; %39,47ko abstentzioa izan da

Hautetsiak**Nagore Alkorta**
EH Bildu**Leire Goenaga**
EH Bildu**Joanes Amenabar**
EH Bildu**Ander Larrañaga**
EH Bildu**Leire Sarasua**
EH Bildu**Mikel Odriozola**
EH Bildu**Idurre Zabaleta**
EH Bildu**Ion Oteiza**
EH Bildu**Aitor Larrañaga**
EH Bildu**Miren Arrieta**
EH Bildu**Jabier Altuna**
EAJ**Nerea Aldai**
EAJ**Antonio Gallarin**
EAJ**Hegoa Larzabal**
EAJ**Jokin Badiola**
EAJ**Edurne Enparan**
EAJ**Alexander Silva**
EAJ

Egindako lanarekin oso gustura gaude, eta ikusi egin da lan horrek emaitza izan duela».

Parte hartzea hamar puntu jaitsi izanak «gizarte bezala zer pentsatua» ematen duela adierazi du Alkorta: «Jende gutxia-

Nagore Alkorta:
«Herritarren erantzuna oso ona izan da»

Jabier Altuna: «EAJk udalean oposizio eraginkorra egiten jarraituko du»

go joatea boza ematera, orokorrean, alderdi politikoek pentsatu beharreko kontua da, baina gainontzean, azken udal bozen emaitzekin oso pozik gaude».

Jabier Altuna EAJren zereendaburuak haiei botoa eman dien herritarrak eskertu ditu, eta Nagore Alkorta eta EH Bildu zoriondu ditu lortutako emaitzenatik. Altunak nabarmendu du, orain arte bezalaxe, «oposizio eraginkorra» egiten jarraituko dutela Azpeitiko Udalean, eta ados ez dauden kontuetan beren desadostasuna agertuko dutela. Akordioetarako prestutasuna izango dutela ere esan du.

Azpeitiko emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	3.742	10
EAJ	2.612	7
PSE-EE	167	0
Elkarrekin-Podemos	65	0
PP	56	0



EAJ izan da garaile Azkoitian, baina zinegotzi bat galdu du

Jeltzaleek eta EH Bilduk zinegotzi bana galdu dute, eta Azkoitia Bai-Elkarrekin taldeak igoera nabarmena izan du: hautetsi bat izatetik hirura igaroko da hurrengo agintaldian.

-ANEOLAIZOLA Azkoitia

Udal hauteskundeetan EAJ alderdia izan da bozkatuena Azkoitian. Izan ere, alderdi jeltzaleak 2.003 boto eskuratu ditu udal hauteskundeetan, eta zazpi zinegotzi izango ditu, egun baino bat gutxiago. EH Bildu izan da bigarren indarra Azkoitian, eta koalizioak 1.848 boto eskuratu ditu; horrenbestez, sei ordezkari izango ditu udalean, egungo agintaldian baino bat gutxiago. Atzetik, 810 botorekin, Azkoitia Bai-Elkarrekin hirugarren indarra izan da hauteskundeetan; igoera nabarmena izan du herri plataformak, eta zinegotzi bat izatetik hiru izatera igaroko da hura. PSE-EEk 438 boto lortu ditu. Azken talde horrek zinegotzi bat izango du udalean. PPK, berriz, 62 boto lortu ditu, eta ez du hautetsirik izango.

Duela lau urteko bozekin alderatuta, Azkoitiko Udalbatzaren argazki orokorrak aldaketa esanguratsua izango du. EAJk eta EH Bilduk zinegotzi bana galtzeaz gain, Azkoitia Bai-Elkarrekin taldea laugarren indarra izatetik hirugarrena izatera igaro da, eta udalbatzan zinegotzi bat izatetik hirura pasatuko da.

Hautetsiak



Ana
Azkoitia
EAJ



Sonia
Vazquez
EAJ



Imanol
Arrizabalaga
EAJ



Marijose
Arregi
EAJ



Igor
Isuskiza
EAJ



Mertxe
Zubillaga
EAJ



Juan Bautista
Mendizabal
EAJ



Asier
Altuna
EH Bildu



Ainara
Goenaga
EH Bildu



Iraitz
Otaño
EH Bildu



Itziar
Larranaga
EH Bildu



Jon
Bastarrika
EH Bildu

Azkoitiko emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EAJ	2.003	7
EH Bildu	1.848	6
Azkoitia Bai-Elk.	810	3
PSE-EE	438	1
PP	62	0



Nagore
Orbea
EH Bildu



Jose Joakin
Etzaniz
Azkoitia Bai



Nerea
Machado
Azkoitia Bai



Janire
Astigarraga
Azkoitia Bai



Janire
Igoa
PSE-EE



Xabier Muniben boza ematen. A. E.

EH Bilduk agintaldia berretsi du Aizarnazabalen

-JULENE FRANTZESENA

Aizarnazabal

EH Bilduk gehiengo osoarekin irabazi ditu udal hauteskundeak Aizarnazabalen. Aurreko agintaldiko zinegotzi kopuruari heldu dio koalizioak; sei lortu ditu, eta beraz, Mari Karmen Arregi izango da alkatea 2023-2027 agintaldian. EAJk, berriz, eserleku bat lortu du Aizarnazabalgo Udalean, aurreko agintaldian bezalatsu.

Boza ematera deituta zeuden herritarren %67 joan zen atzo hauteslekuetara; hau da, orotara, 384 aizarnazabaldarrek eman zuten botoa. Duela lau urteko udal hauteskundeetako da-



Mari Karmen Arregi alkategaia, botoa ematen. MAIALEN ETXANIZ

tuekin alderatuta, %7,44 jaitsi da parte hartze datua. EH Bilduk botoen %79,41 jaso ditu -301 boto-, eta EAJk, berriz, botoen %13,98 -53 boz-. PSE-EE taldeak, berriz, zortzi boto lortu ditu, botoen %2,11.

Horiez gain, hamazazpi boto zuri eta bost baliogabe zenbatu dituzte han.

Aizarnazabalgo emaitzak

Alderdia	Boto kopurua	Hautetsiak
EH Bildu	301	6
EAJ	53	1
PSE-EE	8	0



WEBGUNEAN LANKETA BEREZIA

- Emaizak herriak
- Kronikak
- Argazkiak
- Datuak
- Grafikoak
- Erreakzioak

M30, ASTEARTEA HITZA BEREZIA

- Kronikak, analisiak, balorazioak...
- Foru hauteskundeen emaitzak herriz herri...

UROLA
KOSTAKO HITZAGUKA



#M28

urolakosta.hitzazuk.eus



Gipuzkoako foru bozetan aldearekin nagusitu da EH Bildu

Deba-Urola barrutian zazpi batzarkide lortu ditu EH Bilduk; EAJ, berriz, sei. Gipuzkoan ere errepikatu egin da Deba-Urolako joera: EH Bildu izan da nagusi, eta EAJ bigarren.



Herritar bat botoa ematen atzo goizean Zarauzko hauteslekuetako batean. ARITZ MUTIOZABAL

-JULENE FRANTZESENA

Foru bozetan EH Bildu izan da indar bozkatuena Deba-Urola barrutian. EH Bilduk zazpi batzarkide lortu ditu barruti horretan, duela lau urte baino bat gehiago; eta EAJk, berriz, sei, aurreko agintaldian bezainbeste. PSE-EEK batzarkide bat lortu du Deba-Urolan, lehen zuen kopuruari eutsita. Halaber, Ahal Dugu-Ezker Anitza-Equo Berde-akek galdu egin du duela lau urte barruti horretan eskuratu zuen batzarkide bakarra.

Botoa ematera deituta zeuden herritarren %62,68 joan ziren atzo hauteslekuetara. Dena den, 2019ko hauteskundeekin alderatuta, 7,3 puntu jaitsi da parte hartzea. EH Bilduk botoen %43,51 eskuratu ditu, %36,78

EAJk eta %10,95 PSE-EEK. Boto zuriak, berriz, %1,49 izan dira, eta baliogabeak, %1,19.

Emaitza horiek tarteko, Deba-Urola barrutiko hautes zerrendetako kide hauek izango dira

Gipuzkoan 22 batzarkide lortu ditu koalizioak, eta 17, berriz, EAJk

batzarkide: Estitxu Elduairen (EH Bildu), Aitor Irure (EH Bildu), Itziar Irizar (EH Bildu), Oscar Bordes (EH Bildu), Eider Illarrendi (EH Bildu), Txuma Iturri (EH Bildu), Iker Intza Ortiz de Zarate (EH Bildu), Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ), Aintzane Oiartzabal (EAJ), Jon Ando-

ni Urdangarin (EAJ), Andrea Arriola (EAJ), Ander Garai (EAJ), Amaia Etxeberria (EAJ) eta Alberto Albistegi (PSE-EE).

Gipuzkoan ere joera bera

Gipuzkoan ere errepikatu egin da Deba-Urolako joera. Gipuzkoako Batzar Nagusietan 51 batzarkide izango dira, guztira, eta horien erdiak baino gehiago izango dituzte EH Bilduk eta EAJk. EH Bilduk duela lau urte baino bi batzarkide gehiago eskuratu ditu lurraldean; 22, guztira. EAJk, berriz, mantendu egin du batzarkide kopurua, 17 izango ditu datorren agintaldian ere. PSE-EEK, aldiz, bi hautetsi galdu ditu -berderatzi edukizetik zazpi izatera igaro da-; eta, Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza-Berdeakek bi

galdu ditu -lau batzarkide zituenez orain arte-. PPK, bere aldetik, bi hautetsi gehiago izango ditu hurrengo agintaldian: hiru.

Botoak ehunekoetara eramanda, honako hauek izan dira alderdi bakoitzak eskuratu dituen ehunekoak: EH Bilduk botoen %36,64 (120.578 boto), EAJk botoen %32,04 (105.437 boto), PSE-EEK %15,67 (51.591 boto), Elkarrekin Podemos-Ezker Anitza-Berdeakek bozen %6,46 (21.283 boto) eta PPK botoen %6,25 (20.574 boto). Boz zuriak %1,8 izan dira, eta baliogabeak, aldiz, %1,23. Hala eta guztiz, Gipuzkoan ere jaitsi egin da foru bozetako parte hartzea: herritarren %59,92k eman dute Batzar Nagusietako hautetsiak aukeratzeko botoa.